



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.05.13

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi mila hamahiruan, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Udaleko lau administrari lanpostuak behin betikoz hornitzeko lehiaketa mugatuaren bidez hautaketa-jardunbidea arautzen duten oinarriak eta deialdia egitea.
3. Onartzea programa bidez hiru bitarteko funtzionari izendatzea:
  - Obra Publikoetako ingeniari teknikoa.
  - Administrazio Orokorreko teknikaria.
  - Giza Baliabideetako administraria.
4. Onartzea Berazubi estadioko bulegoak zaharberritzeko proiektua.
5. Onartzea Tolosako Alondegi plazan jarri nahi den egitura tenkatua hornitzeko, instalatzeko eta muntatzeko —proiektuaren idazketa eta muntaia egikaritzeko zuzendaritza fakultatiboa barne



TOLOSAKO  
UDALA

— kontratazio espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.

6. Onartzea Tolosako Haurren Kontseiluaren diseinuaren eta garapenaren zerbitzu-kontratazio espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.
7. 2019/697 Dekretuaren berri ematea (2019/19 eta 2019/20 faktura-zerrendak).
8. Alkatetza dekretu hauen berri ematea: 2019ko maiatzaren 2tik 8ra (dk2019/692-2019/754).

## **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko maiatzaren 6an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

## **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LAU ADMINISTRARI LANPOSTUAK BEHIN BETIKOZ HORNITZEKO LEHIAKETA MUGATUAREN BIDEZ HAUTAKETA-JARDUNBIDEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA DEIALDIA EGITEA.**

I.- Tolosako Udalbatzak, 2018ko abenduaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, ***Tolosako udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana)*** behin betikoz onartzeko erabakia hartu zuen.

*II.- Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.bat.1 eta 19.5 artikuluetan xedatutakoaren arabera eta langileen arloan dauzkan ahalmenak erabiliz, Udal Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 10eko bilkuran, 2018 urterako Lan eskaintza Publikoa onartzea erabaki zuen.*

Akordio honetan, besteen artean, lehiaketa mugatuaren bitartez, Errolda eta Estatistikako administraria, UDATEko administrariak (2), eta Errentako administrari lanpostuak egonkortzea proposatzen zen. Lanpostu hauen ezaugarriak hauexek dira:

ESKALA: Administrazio Orokorra



TOLOSAKO  
UDALA

AZPIESKALA: Administratiboa

MOTA: Administrariak

IZENAK: **Errolda eta Estatistikako administraria, UDATEko administrariak (2), eta Errentako administraria**

SAILKAPEN TALDEA: C

AZPITALDEA: C1

MAILA OSAGARRIA: 17

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 4

TXANDA: Mugatua

HAUTATZE-SISTEMA: Barne Lehiaketa Mugatua

### **ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

I.- Eskumena: Udaleko plantilan dauden aipatu lau administrarien lanpostuak, lehiaketa mugatu bidez arautuko duten oinarriak onartzeko eskumena, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28ko Dekretuan emandako ahalmenez baliatuta (GAO 2015eko abuztuaren 9an, 148. zkian argitaratua) eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikulua xedaturikoari jarraiki.

II.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 25. artikulua "1. *Euskal Herri-Administrazioek ageriko deialdiz eta normahirentzako norgehiagoka, lehiaketa edo norgehiagoka-lehiaketa bidez aukeratuko dute euren langilegoa, funtzionarioa zein lan-itunpekoa izan, horietan, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak bermatuko direla.*" xedatzen du.

Zentzu berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91.2 artikulua "2. *La selección de todo el personal, sea funcionario o laboral, debe realizarse de acuerdo con la oferta de empleo público, mediante convocatoria pública y a través del sistema de concurso, oposición o concurso-oposición libre en los que se garantizan, en todo caso, los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad, así como el de publicidad*" xedatzen du.

III.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3 artikulua adierazten du lehiaketa lanpostuak hornitzeko ohizko sistema izango dela eta bertan, deialdian baloratu *daitezkeen meritua deskribatzen ditu, besteen artean, antzintasuna, gradu pertsonala etab...*

Halaber, urriaren 13ko 190/2004, Dekretuan, herri Administrazioetako lanpostuak hornitzeko erregelamendua onartzen du, eta bertan behin betiko izaeraz lanpostuak



betetzeko lehiaketa sistema arautzen du. Ildo honetatik, lanpostu hauek udaleko lanpostu zerrendan daude eta lauak lehiaketa bidez beteko direla adierazten da.

Aurreko guztia kontutan hartuta eta eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udaleko lau administrari lanpostuen deialdia arautzen duten oinarriak, lehiaketa mugatuaren bidez, honako ezaugarriekin:

<u>LANPOSTUAREN KODEA</u>	<u>LANPOSTUAREN IZENA</u>	<u>DOTAZIOA</u>
2.105	Errola eta Estatistikako administraria	1
2.202	UDATEko administraria	2
3.108	Errentatako administraria	1

Oinarriak hauek dira:

### **OINARRIAK, TOLOSAKO UDALEKO LAU ADMINISTRARI LANPOSTU HORNITZEKO, LEHIAKETA OROKOR MURRIZTUAREN BIDEZ**

#### **Lehena.- Deialdiaren helburua**

1. Deialdi honen helburua da behin betiko hornitzea, lehiaketa orokor murriztuaren bidez, oinarri hauetan adierazitako berezi gabeko lau administrari lanpostuak. Lanpostu guztiak C1 sailkapen azpitaldekoak dira, administrazio orokorreko eskalakoak. Deitutako postuen ezaugarriak oinarri hauen I. eranskinean daude zerrendatuta.

#### **Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.**

1. Deialdian parte hartu ahal izango dute Tolosako Udaleko edo bere organismo publikoren bateko karrerako funtzionarioek, C1 sailkapen azpitaldekoek, administrazio orokorreko zein bereziko eskalakoek, beti ere jatorrizko eta destinuko lanpostuen artean funtzio antzekoak badira, baldin eta betetzen badituzte Tolosako Udaleko lanpostuen zerrendan eta oinarri hauetan ezarritako eskakizunak, deialdi hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta betetzen badituzte, era berean, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudian (urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak onartutakoa) ezarritako baldintzak.

2. Baldintza horiek bete beharko dira esleitutako postuen kargu hartzea arte.



3. Ezingo dute deialdian parte hartu:

- a) Tolosako Udaleko edo bere organismo publiko bateko karrerako funtzionarioak ez direnak.
- b) Administrazio orokorreko eskalako C1 sailkapen azpitaldekoak ez direnak.
- c) Azken bi urteetan lehiaketan lortutako lanposturen baten kargu hartu duten funtzionarioak, jatorrizko administrazioa edo kidegoa edozein delarik ere. Denbora muga salbuetsi daiteke langileak lehiaketan lortutako lanpostuaren esleipena galdu badu.
- d) Eginkizunak irmoki galarazita dituzten funtzionarioak, egoera horrek irauten bitartean.
- e) Norberaren interesagatik edo familiagatik borondatezko eszedentzian egonda, berriz sartzeko gutxieneko denbora egonez diren langileak.

4. Behin-behineko lantokia duten funtzionarioak behartuta egongo dira, egoera horretan dauden bitartean, bere kidegoaren eta eskalarenak diren postuak betetzeko egiten diren deialdietan parte hartzera. Betebehar hori ez betetzeak ekarriko du udal administrazioak, ofizioz, aldez aurretik interesdunari entzunda, deialdiaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetakoren bat ematea.

5. Eskaintzen diren lanei 3. hizkuntza eskakizuna dagokie, derrigortasun data amaituta. Kasu bakoitzean adierazitako hizkuntza eskakizuna egiaztatzea ezinbesteko baldintza da behin betiko lanpostua lortu ahal izateko, eta Administrazio honek ofizioz egingo du egiaztatze hori.

6. Dena dela, deialdian parte hartu dezakete aurkezten diren lanpostuan eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez daukatenean, baina parte-hartze horrek ez du balioko zerrendetan egoteko besterik, aldi baterako beharretarako. Deialdi honetan ezingo dute behin betiko lantoki berri bat izan, eta aipatutako zerrenda horietako eskaintzak bakarrik egingo zaizkie, betiere eskaintzen zaien lanpostuko baldintzak betetzen badituzte, hizkuntza eskakizuna barne.

**Hirugarrena. Parte hartzeko eskaerak.**

1. Deialdian parte hartzeko eskaerak Tolosako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 15 laneguneko epean. Eskaerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua adierazitako lekuetan ere aurkez daitezke.

Correosen bulegoetan aurkezten diren parte hartzeko eskaerak gutun-azal ireki batean entregatuko dira, Correoseko langileek data eta zigilua jar diezaieten, eskaerak egiteko epearen barruan ziurtatu aurretik. Kasu horretan bakarrik ulertuko da eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean sartu direla Correosen bulegoan entregatu ziren datan. Eskaera egon behar da zigilatuta.

2. Eskaerak dokumentu normalizatuan formalizatuko dira (II. eranskina). Dokumentu hori eskuratu daiteke Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako eredutik, web orritik edo Udaletxeko UDATE bulegoan (Plaza Zaharra 6). Eskaerarekin batera, alegazioen agiriak eta merezimenduen ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta, izatekotan, Tolosako Udalak ez dituen parte hartzeko baldintzen ziurtagiriak.

3. Lanpostu bat baino gehiagotarako lehiatu nahi izanez gero, pertsona horrek lehiatuko duen lanpostuen arteko lehentasun ordena adierazi beharko du. Lehentasunen ordena ezingo da aldatu eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren. Gehienez ere, bi lanpostugatik lehiatu ahal izango da.



4. Behar bezala ziurtatutako desgaitasunen bat dutenek lanpostua egokitzeko eskatu ahal izango dute, baita probak egiteko egokitzapenak, denbora doitzeko eta bitartekoak eskatu ahal izango dituzte ere.

**Laugarrena. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzea.**

1. Zortzigarren oinarrian aurreikusitako merezimenduak II. eranskinean jasotako eredu normalizatuan alegatu beharko dituzte parte-hartzaileek, hango atalak beteta eta harekin batera aurkeztutako egiaztagiraren zenbakia adierazita, edo, izatekotan, Udaleko espediente pertsonalean jasotako erreferentzia. Ondorio horietarako, aurkeztutako dokumentuak elkarren hurrengo zenbakiz markatu behar dira. Aurkezten diren agiriek originalak edo benetako kopiak izan beharko dute.

Ez da beharrezkoa izango parte-hartzailearen Tolosako Udaleko espediente pertsonalean jada badauden merezimenduen ziurtagiriak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da haiek alegatzearekin, kontuan izan daitezen.

Izangai bakoitzak sarbidea eduki ahal izango du bere espediente pertsonalera, Giza Baliabideetako Departamentuan eskatuta. Izangai bakoitzari dagokio behar diren egiaztapenak egitea.

Balorazio Batzordeak bere egiten du izangaiei, hautatze prozesuan, argibideak edo, bidezkoa bada, merezimenduak egoki baloratzeko beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak.

Balorazio Batzordeak bere egiten du izangaiei, hautatze prozesuan, argibideak edo, bidezkoa bada, alegatutako edo ziurtatutako merituen egiaztatze beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak.

2. Merezimenduak egiaztatzeke, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabil daiteke. Eta bereziki, honela frogatu daiteke:

a) Titulazio akademikoetarako, tituluaren fotokopiaren edo tasak ordaindu ondoren jasotzen den eskabide frogagiriaren bidez.

b) Prestakuntza ikastaroetarako, erakunde antolatzailearen egiaztagiraren originalaren edo benetako kopiaren bidez, berariaz adierazita eskola orduen kopurua. Ikastaroen ziurtagiriek kredituak bakarrik adierazten dituztenean, kreditu bakoitza hamar orduren baliokidea dela ulertuko da.

Ez dira baloratuko berariaz ordu edo kreditu kopurua adierazita ez daukaten egiaztagirak.

c) Antzintasuna, maila pertsonal egonkortua eta Tolosako Udalean betetako lanpostuak Udaleko Giza Baliabideetako Departamentuak egiaztatuko ditu.

d) Beste Administrazio Publiko batzuetan eginiko lana egiaztatzeke, administrazio publiko horiek emandako egiaztagirak erabiliko dira. Horietan, zehaztuta agertuko dira izandako lanpostuak, lanpostuei esleitutako funtsezko zereginak, ordainsari maila eta lanpostu bakoitzean emandako denbora.

e) Euskararen ezagutza zazpigarren oinarrian ezarritako moduan egiaztatuko da.

3. Adierazitako moduan alegatzen edo egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko.

4. Urteen edo hilabeteen arabera balioztatzen diren merezimenduak kalkulatzeko, alegaturiko aldiak batuko dira, egun kopuruak kontuan hartuz; eta, ondoren, erreferentziazko aldia baino txikiagoak



TOLOSAKO  
UDALA

*diren hondarrak baztertuko dira. Horren ondorioetarako, urtea 365 egun naturalen batura da; eta hilabetea, 30 egun naturalen batura.*

*5. Merezimenduak eta parte hartzeko eskakizunak deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eguna aintzat hartuta baloratuko dira. Dena dela, euskara proba deituko balitz, euskararen ezagutza egiaztatzeko data lehen euskara proba egin arte atzeratuko da.*

#### **Bosgarrena. Izangaiak onartzea.**

*1. Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, eskumena duen udal organoak ebazpena emango du, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko. Hamar (10) egun balioduneko epea izango da, baztertzea eragin duten akatsak edo hutsegiteak konpontzeko, edo zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko. Ebazpena Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da. Iragarki taula eta web orri hori izango dira iragartzeko bideak iragartzeko beste biderik aurreikusi ez den jarduketetarako, beste bide gehigarri batzuk erabiltzearen kalterik gabe.*

*2. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda, zuzenean, behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamaziorik egonez gero, beste ebazpen batean onartu edo baztertuko dira eta bertan agertuko da behin betiko zerrenda. Lehen adierazitako modu berean argitaratuko da zerrenda hori.*

#### **Seigarrena. Balorazio Batzordea.**

*1. Guztira, bost kidek osatuko dute Balorazio Batzordea. Batzordeburu bat, idazkari bat eta hiru batzordekide. Udal organo eskudunak izendatuko du jarduketak hasi aurretik, eta Udaleko iragarki taulan eta web orrian jakinaraziko da.*

*Idazkariak hitza eta botoa izango ditu.*

*Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak pertsona bat izendatuko du deialdian eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetarako Balorazio Batzordean parte hartzeko.*

*2. Batzordeko kideek karrerako funtzionarioak izan beharko dute, deitutako lanpostuari atxikitako titulazio talde berekoak edo altuagokoak, eta ahalegina egingo da gutxienez erdiek deitutako postuetako sail funtzionalean eginkizunak eginak izateko edo ezagutzak izateko.*

*Balorazio Batzordeko kideek ezingo dute jardun, edo interesdunek ezetsi ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoiren bat baldin badago, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan izangaiak hautatze probetarako prestatzeko lanak egin badituzte.*

*3. Balorazio Batzordearen osaerak bere kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatuko du, baita gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua dagoela ere, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 20.6 artikuluari jarraikiz.*

*4. Aukeraketa Batzordeak independentzia, diskrezionalitate tekniko eta objektibotasun osoz jardungo du, eta bere proposamenak lotesleak izango dira administrazioarentzat.*

*Balorazio Batzordearen jarduketek duten diskrezionalitate teknikoari kalterik egin gabe, beren erabakiak arauak eta deialdiaren oinarriak beteta arrazoitu beharko dira.*



5. Balorazio Batzordea eratzea eta haren jarduera hauen menpe egongo da: oinarri hauek, 190/2004 Dekretua (urriaren 13koa, Euskal Herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onesten duena), eta 40/2015 Legearen (urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 15 eta 18 bitarteko artikulua.

Balorazio Batzordea aldeztu aurretik bilduko da, idazkariak eginiko deialdiari jarraikiz, bere batzordeburuaren aginduz. Balioz eratzeko, saioak eta eztabaidak egin, eta erabakiak hartze aldera, beharrezkoa izango da batzordeburua eta idazkaria betan egotea (aurrez aurre edo urrutitik), bai eta horien ordezkioak eta, gutxienez, kideen erdia ere.

Aurrez aurre edo urrutitik kide anitzeko organoko kide guztiak edo, hala badagokio, horien ordezkioak, balioz eratu ahalko dira kide anitzeko organo gisa, saioak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartu ahal izateko, aldeztu aurretik deialdirik egiteko beharrik gabe, kide guztiek hala erabakitzen dutenean.

Erabakiak bertaratuen botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketak batzordeburuaren kalitateko botoaren bidez ebatziko dira.

Ez etortzearen edo gaixotasunaren kasuan eta, oro har, arrazoi justifikazio bat dagoenean, Balorazio Batzordeko kide titularren lekua euren ordezkioek hartuko dute.

Baldin eta leku huts, ez etortze, gaixotasun edo batzordeburuari eta bere ordezkioari eragiten dien beste legezko kausaren bat gertatzen bada, Balorazio Batzordean hierarkia, antzinatea eta adin altuena duen kideak ordezkatuko ditu, hurrenez hurren.

Idazkaria eta bere ordezkioa ordezkatzeari dagokionez, baldin eta leku huts, ez etortze, gaixotasun edo beste legezko kausaren bat gertatzen bada, Balorazio Batzordeko beste edozeinek ordezkatuko ditu, kideen gehiengoak erabakitzen duenari jarraikiz.

### **Zazpigarrena. Euskararen ezagutza egiaztatzea.**

1. Euskararen ezagutzaren eskakizunari dagokionez, bigarren oinarriko 5. atalean ezarritakoa izan behar da kontuan.

2. Izangai bakoitzak eskari orriko eredu normalizatuan adierazi behar du bere euskarazko hizkuntza eskakizuna, eta, eskaerarekin batera, adierazitako maila egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar du. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiria Tolosako Udalean jasota badago, izangaiaren espediente pertsonalean, ez da beharrezkoa izango hori berriro aurkeztea. Kasu horretan aski izango da eskaeran alegatzearekin, aintzat hartua izan dadin. Laugarren oinarriko 1. atalean zehazten da zer egin behar den espediente pertsonala ikusteko eskatzeko.

3. Euskararen ezagutzak frogatzeko, lortu nahi den lanposturako eskatzen den hizkuntza eskakizunarekin baliozkotutako ziurtagiri edo tituluren bat aurkeztu ahal izango da, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Era berean, euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatu beharrik ez dute izango apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoaren, edo hura aldatu edo ordezkatu duen araudiaren arabera, lortu nahi den lanposturako eskatzen den hizkuntza eskakizunaren salbuespena egiteko adina balio duten egiaztapenak aurkezten dituztenek.





4. Euskara probak egiteko eskaeraren bat badago, lortu nahi den lanposturako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probetarako deialdia egingo da. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proben emaitza honela kalifikatuko da: gai edo ez gai.

**Zortzigarrena. Merezimenduen balorazioa.**

1. Balorazio Batzordeak izangaiek aldez aurretik alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko ditu, hirugarren oinarriko 2. atalean eta laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

2. Ondoren aipatuko diren alderdiak balioztatuko dira, eta bakoitzarentzako kasu bakoitzean adierazten den puntuazio maximoa eta dagokion baremoa aplikatuko dira.

a) Egindako lana.

Gehienez 35 puntu emango dira.

Balorazioa baremo hau aintzat hartuta egingo da.

— Deialdiaren xede den lanpostu berean egindako lanengatik: 1 puntu zerbitzuan emandako hilabete bakoitzeko eta gehienez 15 puntu.

— Deialdiko lanpostuaren arlo material berean administrari lanpostuetan egindako lanengatik: 0,2 puntu zerbitzuan emandako hilabete bakoitzeko eta gehienez 15 puntu. Eredu materiala postua atxikita den Zuzendaritza edota, hura ez bada, Zerbitzua da.

— Administrari zereginetan egindako lanengatik: 0,2 puntu zerbitzuan emandako hilabete bakoitzeko eta gehienez 5 puntu.

Aldi berean emandako zerbitzuak baloratzeko, aipatutako lau ataletako bat baino ez da kontuan hartuko. Kasu guztietan, puntu gehien ematen dituen atala kontuan hartuko da.

Izendatua edo kontratatua izan den lanpostuaren katalogoan agertzen diren funtzioak edo, izendapena edo kontratua funtzioak betetzeko izan bada, izendapen edo kontratu horretan deskribatutako funtzioak soilik izango dira kontuan.

Egindako lanari dagokionez, haurrak edota familiakoak zaintzeagatik eszedentzian egondako aldiak, haurrak edota familiakoak zaintzeko lanaldi murriztuan egondakoak nahiz zerbitzu berezietan arituko denbora kontuan hartuko da.

% 50 arteko lanaldi murrizketak % 100en egindako lanaldi gisa zenbatuko dira.

Tolosako Udaletik kanpo egindako lanak alegatzen dituztenek zer lanpostu bete dituzten egiaztatu beharko dute. Betiere, laugarren oinarriko 2.d) atalean aurreikusitako moduan.

b) Antzinasuna.

0,10 puntu hilabete bakoitzeko. Gehienez 10 puntu emango dira.

Antzinasuna zenbatzeko, aintzat hartuko dira karrerako funtzionarioa izan aurretik emandako zerbitzu aitortuak.



TOLOSAKO  
UDALA

*Antzinasunari dagokionez, haurrak edota familiakoak zaintzeagatik eszedentzian egondako aldiak, haurrak edota familiakoak zaintzeko lanaldi murriztuan egondakoak nahiz zerbitzu berezietan aritutako denbora kontuan hartuko da.*

*c) Maila pertsonal egonkortua.*

*Gehienez 4 puntu emango dira; honela banatuko dira maila pertsonal egonkortuaren arabera:*

*— Eskainitako lanpostuaren lanpostu-mailako osagarriaren maila bera edo handiagoa: 4 puntu.*

*— Eskainitako lanpostuaren lanpostu-mailako osagarria baino maila bat edo bi gutxiago: 2,5 puntu.*

*— Eskainitako lanpostuaren lanpostu-mailako osagarria baino bi mailatik gora gutxiago: puntu 1.*

*d) Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak.*

*Gehienez 2 puntu emango dira.*

*Gutxienez 20 ordu dituzten ikastaroak soilik hartuko dira kontuan, beti ere azken 10 urtean egindakoak direnean. Deialdiari buruzko iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da 10 urte horiek zenbatzeko muga.*

*0,25 puntu emango dira 20 orduko multzo bakoitzeko, ikastaroa egin eta gainditu egin dela egiaztatuz gero. Horretarako, ikastaro guztietako orduak batu egingo dira, eta 20 ordu baino gutxiagoko multzoren bat gelditzen bada, ez da kontuan hartuko.*

*Ikastaro bat baino gehiago gai beraren ingurukoak badira eta elkarren artean espezializazio edo hierarkia erlazioaren bat badute, iraupen handienekoa soilik hartuko da kontuan.*

*Deialdiko lanpostuaren berezko eginkizunekin edo hori garatzeko behar diren gaitasunekin lotutako gaien arloko ikastaroak soilik baloratuko dira. Baloratuak izateko, beharrezkoa da administrazio publikoek, unibertsitateek edo elkargo profesionalek horiek antolatu edo homologatu izana.*

*Aplikazio informatikoei buruzko ikastaroek ezin izango diote 100 ordu baino gehiago erantsi gutzizko kopuruari, IT Txartelak edukitzeagatik eskuratutako orduak barne.*

*IT Txartelak balioetsi egingo dira, hala oinarritzko mailari dagozkionak nola maila aurreratuari dagozkionak. Dena dela, aplikazio informatiko beraren bi mailak dituztenei maila aurreratuko soilik hartuko zaie kontuan. Bestalde, aplikazio informatiko beraren inguruan ikastaroren bat eta IT Txartelen bat izanez gero, ordu gehien batzen dituen aukera soilik hartuko da kontuan.*

*Oinarritzko mailari dagokion IT Txartel bakoitzak 20 orduren balioa izango du, eta maila aurreratuko IT Txartel bakoitzak, ostera, 40 orduren balioa.*

### ***Bederatzigarrena. Balorazio Batzordearen proposamena.***

*1. Balorazio Batzordeak merezimenduak baloratu ondoren, Tolosako Udalak bere web orrian argitaratuko ditu merezimenduen behin behineko kalifikazioak eta deialdiko lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena.*

*Esleipen proposamenean puntuaziorik altuena lortu duen izangaia adieraziko da; proposamena balorazioaren emaitzaren eta, hala badagokio, deialdian parte hartu dutenek zehaztutako lehenetsun ordenaren arabera egingo da.*



2. Lehiaketaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen bada, baremoan ezarritako gehienezko puntuazioaren arabera ordenatutako merezimenduetan lortutako puntuaziora joko da, handienetik txikienera: egindako lana, antzinasuna, heziketa eta hobekuntza ikastaroak, gradu pertsonal finkatua eta tituluak.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, ordena honetan, hauetara joko da: lehiaketa egiten den kidego edo eskalan karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena, karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena, azken behin betiko postuan antzinasun handiena duena, eta administrazioan antzinasun handiena duena.

Berdinketa hausteko irizpide gehigarriren bat behar bada, Balorazio Batzordeak merezimendu printzipioaren erabaki bidez ebatziko du.

3. Lehen izandako lanpostua ezabatu izanaren ondorioz edo edukia aldatu dela-eta lekualdaketa egon delako, beste lanpostu bati aldi baterako atxikitako funtzionarioek, lehiaketa honetan eta behin bakarrik, lanpostu hutsak betetzeko lehentasuna izango dute; lanpostuak, ezabatutako edo aldatutako lanpostuaren lanpostu mailako osagarri berdina edo txikiagokoa izan beharko dute.

Epe hori amaituta, Balorazio Batzordeak aurkeztutako erreklamazioak eta zuzenketak aztertuko ditu, eta ondoren, behin betiko kalifikazioak argitaratuko dira.

#### **Hamargarrena. Deialdiaren ebazpena.**

1. Behin betiko kalifikazioak onartu ondoren, Balorazio Batzordeak deialdiko lanpostuen behin betiko esleipena aurkeztuko du, Udaleko organo eskudunak onesteko eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko web orrian argitaratzeko.

Ebazpen horretan, halaber, jatorrizko lanpostuen eteteak jasoko dira.

2. Deialdiko lanpostuak huts deklaratu ahal izango dira deialdian eskatutako betekizunak biltzen dituzten hautagaiak ez egoteagatik.

3. Izangaiek, boluntarioki, lehiaketan parte hartzean atzera egin ahal izango dute, behin-behineko esleipenaren ondoren erreklamazioak aurkezteko emandako epea amaitu ondoren egiten badute. Ez da onartuko zati batean atzera egitea eskatutako lanpostu bati edo batzuei dagokienez. Atzera egiteko aukeratik salbuesita geratuko dira bigarren oinarriko 4. atalean adierazten diren behin-behineko lan izendapena duten izangaiaik.

4. Esleipendunek lehiaketaren bidez lortutako lanpostuaren kargu hartu beharko dute aurrekoaren titulartasuna galduz, kargua hartzeko epea amaitu aurretik deialdi publiko bidez beste izendapen bat lortu dutenean izan ezik, ezintasunagatik, zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera igarotzeagatik, edo deialdia egin duen organoak bidezkotzat jotako eta behar bezala justifikatutako salbuespenezko beste kausa batzuegatik.

#### **Hamaikagarrena. Kargu uztea eta kargu hartzea.**

1. Esleitutako lanpostuko kargua lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunetan utzi beharko da. Salbuespen gisa, epe hori langileen arloko eskumeneko organoak



*luzatu ahalko du behar bezala arrazoitutako arrazoiak tartean daudenean. Zerbitzu arrazoiak direla eta jatorrizko lanpostuan kargu uztea atzeratu zaion izangaiari, kargu uzte eraginkorrera arteko epea zenbatuko zaio lanpostu berrian egindako lan gisa.*

*2. Kargua hartzeko eguna kargu uztearen ondokoa izango da. Ebazpenak berekin badakar zerbitzu aktiboan berriro sartzea, kargu hartzea lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunetan egin beharko da.*

*3. Kargu hartzea baimen, lizentzia, oporraldi edo funtzionarioa zerbitzu aktiboan jarraituz bere zerbitzuak behar bezala ematea eragozten duen beste edozein egoera amaitu arte atzeratuko da. Salbuespen gisa, behar bezala arrazoitu eta justifikatutako arrazoiengatik, eskumeneko organoak horiek eteteko erabakia hartu ahal izango du.*

*4. Hala ere, antolakuntzako arrazoiengatik hala gomendatzen denean, esleipenaren ebazpenean esleipendunek kargu uzteko eta kargu hartzeko egun zehatza adierazi ahal izango da.*

*Halaber, salbuespen gisa, eta deialdiko lanpostuen okupazioaren aldaketa kopuru nabarmena egongo balitz, kargu uzteko eta kargu hartzeko egun zehatza adierazi ahalko da, mailaz maila, lehenengo kargu hartzetik azkenengora hiru hilabeteko epearen barruan.*

**Hamabigarrena. Lanposturen bat aldi baterako bete beharra.**

*Deialdi honetako xede den lanposturen bat aldi baterako betetzeko beharra badago, eta hori zerbitzu eginkizunen bidez egin nahi bada, lanpostua esleitzeko eskaintza lanpostu horretako izangaien lehentasunezko ordenari jarraikiz egingo da.*

**Hamahirugarrena. Aurkaratzeak.**

*Interesdunek deialdia, oinarri hauek eta horren eta Balorazio Batzordearen egintzen ondoriozko egintza administratiboak aurkaratu ahal izango dituzte Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasu eta moduetan.*

1. ERANSKINA

**ESKAINTZEN DIREN LANPOSTUAK**

<b><u>LANPOSTUAREN KODEA</u></b> <b><u>CÓDIGO PUESTO</u></b>	<b><u>LANPOSTUA</u></b> <b><u>PUESTO DE TRABAJO</u></b>	<b><u>DOTAZIOA</u></b> <b><u>DOTACIÓN</u></b>
2.105	Erroldako eta Estatistikako administraria <i>Administrativo de Empadronamiento y Estadística</i>	1
2.202	UDATEko administraria <i>Administrativo UDATE</i>	2
3.108	Errentako administraria <i>Administrativo de Rentas</i>	1



TOLOSAKO  
UDALA

### **Lanpostua: Erroldako eta Estatistikako administraria**

Lansariak.

- Lanpostu-osagarria: 17. maila.
- Berariazko osagarria: 13.909,28 euro.

Baldintzak.

- Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioak izatea.
- Administrazio Orokorreko edo Bereziko (ikus 2<sup>a</sup> oinarria) Eskalakoa izatea, C1 Azpitaldekoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data igarota.

Funtzioak:

- Udaleko ondare-erantzukizuneko eta ondare-erreklamazioko espedienteak tramitatzea.
- Panteoien titulartasun-transmisioak: prozedura kudeatzea eskaeratik likidaziora.
- Udaleko ediktuen taulako iragarkien eginbideak egin eta iragarkiak bidali.
- Gobernu Batzarra: gai-zerrenda egin, batzarkideei deialdia egin, eta akta egin, idazkariaren ikuskaritzapean, eta erabakiak dagozkien departamentuetara bidali.
- Errolda: iraungitze-bajak eta ofiziozkoak tramitatu. Berritu ez diren iraungitze-bajak eta ofiziozko bajak kudeatu eta tramitatu.
- Idazkariarekin lankidetzan jardun beharrezko den guztian, hauteskunde-prozesuak behar bezala gara daitezen, eta eskatzen zaizkion gaien izapidetze administratiboaren ardurua hartu (alegazioak, boto-paperak prestatu, e.a.).
- Horietaz gain, beste lan batzuk ere egitea, bere gaitasun eta ahalmen profesionalarekin bat etorrita ezarriak, helburuak lortze aldera, eta legez dagozkionak ere egitea.

### **Lanpostua: Erregistroko eta Informazioko administraria (UDATE)**

Lansariak.

- Lanpostu-osagarria: 17. maila.
- Berariazko osagarria: 13.909,28 euro.

Baldintzak.

- Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioak izatea.
- Administrazio Orokorreko Bereziko (ikus 2<sup>a</sup> oinarria) Eskalakoa izatea, C1 Azpitaldekoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data igarota.

Funtzioak:

- Erantzutea herritarrek egindako informazio- eta tramitazio-eskaerei eta UDATEn zerbitzuen inguruan egindako eskaerei, guztia ere zerbitzu balioaniztuna izateko asmoz eta erakundearen osotasuneko ikuspegia kontuan izanda.



TOLOSAKO  
UDALA

- Departamentuen kokaguneari eta eskumenei buruzko informazioa ematea.
- Udalak eskaintzen dituen jarduera eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea, bai eta horietan parte hartzeko edo baliatzeko baldintzei buruzkoa ere.
- Izapideen eskuliburuan jasotako informazioa ematea herritarrei.
- Herriari eta bertako erakunde, zerbitzu, tramite, jarduera nahiz antzeko kontuei buruzko informazioa ematea, bai eta beste administrazioek eskainitako zerbitzurik ohikoenei buruzkoa ere.
- Inprimakiak ematea eta, beharrezkoa bada, betetzen laguntzea.
- Dokumentuak erregistratzea, digitalizatzea eta, egoki bada, konpultsatzea, nahiz eta beste administrazio batzuetara doazenak izan, elkarreragingarriak diren Erregistroen bitartez; aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko da.
- Berehala erantzuteko prozedurak tramitatzea eta ebaztea.
- Autolikidazioak kobratzea.
- Espedienteen tramitazioaren egoerari buruzko informazioa.
- Udalaren informazio-sistema elikatzea, datuak jaso, sartu eta egiaztatuta (hirugarrenak, etab.).
- Abisuak, matxurak, kexak eta iradokizunak jasotzea eta tramitatzea.
- Argitalpenak eta planoak saltzea.
- Udaleko arduradunekin aurretiko hitzordua egiteko sistema kudeatzea.
- Sinadura elektronikorako eta herritarraren karpetarako sarbidea erraztea.
- Herritarrek adierazi dituzten eta estali gabe dauden beharrak antzeman eta zehaztea.
- Informazioko eta tramitazioko zeregin guztiak hainbat bidetatik egingo dira: aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, sare sozialak, etab.
- Bere mailari dagokion eta nagusiak agintzen dion beste edozein.

### **Lanpostua: Errentako administraria**

Lansariak.

- Lanpostu-osagarria: 17. maila.
- Berariazko osagarria: 13.909,28 euro.

Baldintzak.

- Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioak izatea.
- Administrazio Orokorreko Bereziko (ikus 2<sup>a</sup> oinarria) Eskalakoa izatea, C1 Azpitaldekoa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data igarota.

Funtzioak:

- Zergadunen datu-basea etengabe eguneratuta edukitzea: altak, bajak, aldaketak..
- Agiriak eta ordainketak kudeatzea entitate laguntzaileetan, eta zergadunei eragiten dieten aldaketak tramitatzea.
- Errolda fiskalak egitea eta etengabe eguneratzea —altak, bajak, aldaketak—: ibilgailuak, hondakinen bilketa, pasabideak eta ibilgailuen sarbideak, hiri- eta landa-OHZ, Euskal Herria plazako, Zerkausiko eta Berdura plazako postuak, autotaxiak, Euskaltegiko matrikulak...
- Kudeatzea, ezarritako prozeduraren arabera, tasen eta udal zergen likidazioa, ordainagiriak eta jarraipena.



- Ura hornitzen duen enpresarekin koordinatzea, informazioa trukatzeko eta urari buruzko errolda fiskala eta hondakin-bilketakoa eguneratzeko.
- Izapidetze administratiboa egitea, tasak edo erroldak kobratzeko, kasu bakoitzean behar den prozedura jarraituta: errolda fiskalak egin, espedientea aprobatu eta jendaurrean jarri, aldizkari ofizialetan argitaratu, erreklamazioak atenditu...
- Izapidetze administratiboa egitea, errolda fiskalen urteko egutegi fiskala argitaratzeko.
- Zerga-biltzaileari laguntzea karguak irekitzen eta ixten.
- Errolda fiskalen kobrantzaren kontrola egitea, epeei eta itzultako jakinarazpenei dagokienez, eta kobratzeke dauden ordainagiriak kobrantza exekutibora pasatzea, prozesua behar bezala izapidetu dela egiaztatu eta gero (jakinarazpenak, datuen zuzenketa,...).
- Zergadunek egindako erreklamazioak eta eskabideak jasotzea eta izapidetze administratiboa egitea —Ogasun Batzordera bidali, alkatetza-dekretuak egin...—, errolda fiskalak aldatzeko eta, ondorioz, eguneratzeko.
- Horietaz gain, beste lan batzuk ere egitea, bere gaitasun eta ahalmen profesionalarekin bat etorrita ezarriak, helburuak lortze aldera, eta legez dagozkionak ere egitea.

**BIGARRENA.-** Deialdia martxan jartzea eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratuaz

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri Kontuhartzailletza, Giza Baliabideetako Departamentuari eta langileen ordezkariari ematea.

### **3. ONARTZEA PROGRAMA BIDEZ HIRU BITARTEKO FUNTZIONARI IZENDATZEA:**

- **OBRA PUBLIKOETAKO INGENIARI TEKNIKOAK.**
- **ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA.**
- **GIZA BALIABIDEETAKO ADMINISTRARIA.**

Giza Baliabide sailean hiru proposamen jaso dira programa bidezko funtzionariak izendatzeko:

1.- Kontuhartzailletzarako 2018/33 Foru Dekretuaren ezarpena burutzeko, Sektore Publikoaren 9/12017 Legearen obligazioak burutzeko, Estatuko 2105/2012 Aginduaren baitan eskatutako informazioa helarazteko eta administrazio elektronikoaren prozedurak eta ereduak egiteko.

2.- Hirigintza, obrak eta Zerbitzuetako sailerako, urbanizazio obren preskripzio teknikoen plenguak egiteko.

3.- Giza Baliabide sailean 2018, 2019 eta 2020 urteetarako Lan eskaintza Publikoak bideratzeko.



TOLOSAKO  
UDALA

Programaren helburu nagusiak dagokion Zerbitzuburu bakoitzak egindako txostenean azaltzen dira.

Hasiera batean, lan hauek aldi baterako izaera dute eta ez dute izaera estrukturala. Arrazoi hauengatik, aipatu txostenetan deskribatu diren zereginak Programa bat osatuko dute, aldi baterako funtzionario batek burutu ditzan. Kasu honetan, honako perfil motak proposatu dira aipatu lanpostuak betetzeko:

- 1.- Kontuhartzaitzari dagokionez, Administrazio Orokorreko teknikari bat
- 2.- Hirigintzako Departamentuari dagokionez, Obra Publikoetako Ingenieri tekniko bat
- 3.- Giza Baliabide Departamentuari dagokionez, administrari bat.

Programa hauek, lehen eta hirugarren kasuan urtero ebaluatuko dira eta programa bakoitzaren exekuzio maila aztertuko da. Bigarren kasuan, hirugarren hilabetean egingo da azterketa hori.

## ZUZENBIDEZKO OINARRRIAK

I.- Aplikatu beharreko Funtzio Publikoko araudiari dagokionean, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 3. artikulua Toki erakundeetako pertsonal funtzionarioari dagokionez, ondokoa xedatzen duela: *“1. Toki-erakundeetako funtzionarioak arautzeko orduan oinarri izango dira, batetik, aplikatu beharreko estatu-legeria, estatutu hau berau ere horren osagai izanik, eta, bestetik, autonomia-erkidegoetako legeria, toki-administrazioen autonomia errespetatuta*  
- (...)”

I.1. Izendatzea proposatzen den enplegatua bitarteko funtzionarioa izango da, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu honek, bere 1. atalean bitarteko funtzionarioak zerrendatzen dituenean ondokoa xedatzen du, Sektore Publikoa Arrazionalizatu eta Administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuk ezartzen dituen irailaren 16ko 15/2014 Legeak xedaturiko aldaketak kontutan hartuta: *“1. Bitarteko funtzionarioak dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, hauetako bat gertatzen denean:*

- a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.
  - b) Titularrak aldi baterako ordeztzeko denean.
  - c) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
  - d) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean.
- (...)”

Atal honetan xedaturikoaz gain, 15/2014 Legeak 10. artikuluan 6. atal berria sartu zuen, bitarteko programako funtzionarioei eragiten dienez, kontutan hartu beharrekoa: *“6. Aldi baterako programak betetzeko edo zeregin gehiegi dagoelako hamabi hilabeteko epearen barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen diren bitarteko langileek agintzen*





TOLOSAKO  
UDALA

zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean, baldin eta unitate horiek, hurrenez hurren, aldi baterako programa horren aplikazio-eremuan parte hartzen duten unitateak badira –artikulu honetan adierazitako epemugarekin– edota zeregin gehiegi badute

Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoko legediak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 91. artikulua eta ondorengoek bitarteko funtzionarioen erregimena arautzen du. Ondokoa xedatzen du 91. artikulua 1. atalak: *“1. Izendapenez eta presako arrazoiengatik, zerrendako lanpostu hutsak karrerako funtzionarioz bete arte edo, horiek ez dauden kasuetan, horien ordezkotza egiteko sar daitezenez dira bitarteko funtzionario.”* Aipatu lege-xedapenean bitarteko programako funtzionarioei aipamenik egiten ez badie ere, Lege horren 17. Xedapen Gehigarriak programako bitarteko funtzionarioak arautzen ditu: **“91. artikuluan xedaturikoaren kalterik gabe, Autonomia Erkidegoko Foru eta Toki Administrazioek, aldi baterako programak egikaritzeko bitarteko funtzionarioak izendatu ditzakete.”**

**1.2.** Bitarteko funtzionarioaren hautaketari dagokionez, berriz, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 10 10.2 artikulua xedatzen du bitarteko funtzionarioen hautaketa berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak aintzat hartuko dituen jardunbide azkarren bidez egin behar dela, aurrez horiek izendatzeko beharra eta urgentzia justifikatuta.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikulua ondorengoa xedatzen du: **“33. atala.1. *Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.*”**

Halaber, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legeak, lanpostuen hornidurari dagokionean garatzen duen araudiak, Euskal Administrazio Publikoetako pertsonal funtzionarioaren lanpostuen hornidurari buruzko Araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak, bere 58. artikulua 2. eta 3. ataletan, xedatzen du **“2. *A falta de normativa específica la selección se hará, con carácter general, entre el personal aprobado en procesos selectivos para el acceso a la condición de personal funcionario o para la formación de bolsas de empleo temporal.*”**

**3. *Siempre que no impida una gestión eficiente de los recursos humanos, las Administraciones Públicas Vascas colaborarán entre sí, proporcionándose personal integrado en sus bolsas de empleo para el nombramiento de personal funcionario interino.*”**

Honela, 190/2004 Dekretuko 58.3 artikulua xedaturiko bidea erabiltzea proposatzen da, hau da, Tolosako Udalak une honetan arestian aipatzen diren profilak betetzeko lan-poltsa propiorik ez du ezta berebat ere lan-poltsak kudeatzeko araudi propiorik ere. Horregatik, beste erakunde publiko batetik lortutako lan poltsen bidez hautaketa egiteko proposamena luzatzen da.



## 2. Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen uztailren 3ko 6/2018 Legearekin egokitasuna.

**2.1** Bitarteko funtzionarioaren izendapenari dagokionez, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, bere 19.Dos artikuluan, honako hau xedatzen du: *No se podrá proceder a la contratación de nombramiento de personal estatutario temporal y de funcionarios interinos excepto en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables.*

**2.2** Pertsonaleko gastuen arloari dagokionez, abenduaren 27ko 24/2.018 Legegintzako Errege Dekretuak, bere aplikazio esparrua 3. artikuluan arautzen du, honen barnean Toki Korporazioak, bere menpeko erakunde publikoak zein entitate pribatuak sartzen direlarik.

Behin aplikazio eremua arautuz gero, aipatu Errege Lege Dekretuak enplegatu publiko guztien ordainsariak bere horretan mantentzen ditu, aldaketarik gabe, 3 artikuluaen Dos atalean, honako era honetan:

“Dos. En el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **2,25 por ciento** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

.../...

**Además** de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de **1 de julio** de 2019, otro 0,25 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30 %.

PIB igual a 2,2: 2,35 %.

PIB igual a 2,3: 2,40 %.

PIB igual a 2,4: 2,45 %.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo



TOLOSAKO  
UDALA

para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

Además, se podrá autorizar un **incremento adicional del 0,25** por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de **superávit presupuestario** en el ejercicio 2018, este incremento adicional podrá alcanzar el **0,3 por ciento.**”

Beraz, Tolosako Udalaren 2019ko Aurrekontuetako dokumentuak bereak egin behar izan ditu xedapen hauek, eta pertsonaleko ordainsariak % 2,25eko gehikuntza izan dute (eta % 0,25 gehiago uztailaren 1etik aurrera), 2018ko aurrekontuekin alderatuta, homogeneotasun terminoak kontuan hartuta, eta hurrengo paragrafoetan adierazten dena salbu.

Xedapen honek salbuespen bakarra dauka, 3. artikuluaen zazpi atalean xedatzen dena:

*Siete. Lo dispuesto en el apartado Dos del presente artículo se entenderá sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.*

Hala ere, 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3. Bi artikulua, sektore publikoko pertsonalaren ordainsarien gehienez % 2,25 (eta ondoren, beste %0,25 gehiago) igotzea xedatzen du **“homogeneotasun terminoetan”**, pertsonalaren baliabide zein pertsonalaren antzinasunari dagokiona. Beraz, 2018. eta 2019. urteetako konparaketa, giza baliabide beretan eta egoera beretan oinarritu behar da.

Zer esan nahi du honek? Printzipio hau, homogeneotasunarena, ezin zaiela aplikatu homogeneoak ez diren egoerei. Kasu nabarmena, hirurtekoak betetzen dituen pertsonalarena da, pertsonal horri ordaindu behar zaizkiolako funtzionarioen zein lan izaerako langileen araubidea arautzen duten xedapenetan jasotako ordainsariak. Erakunde publikoek (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lanbidek...) diruz lagunduriko kontratazioak ere ezin dira kontuan hartu atal honetan, zehaztutako aldi baterako egitasmoekin lotuta daudelako, suposatzen duten gastua ia bere osotasunean laguntzen



TOLOSAKO  
UDALA

bidez finantzatzen delako, eta behin kontratazio epea amaituz gero, inolako jarraipenik ez dagoelako.

Beraz, 24/2018 Errege Lege Dekretuak 3.Dos artikulua xedatzen duen homogeneotasunak, egoera berdinetan oinarritzen diren elementuen konparaketa hartuko du oinarri gisa, hain zuzen, 2018ko abendu 31n zegoen egoera -antzinatasuna barnekontuan hartuta.

Hortaz, hori dena kontuan izanik eta udal teknikariaren proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.** Programa bidezko hiru bitarteko funtzionario izendatzea, honako ezaugarriekin:

- Kontuhartzaitzarako, Administrazio Orokorreko teknikari bat
- Hirigintzako Departamenturako, Obra Publikoetako ingeniari tekniko bat
- Giza Baliabideetako Departamenturako, administrari bat.

**BIGARRENA.-** Onartzea proposamen honen eranskin gisa doan 116.057,05 euroko gastua, aipatu programak aurrera eraman ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Giza Baliabideetako Departamentuari eta langileen ordezkari.

## **4. ONARTZEA BERAZUBI ESTADIOKO BULEGOAK ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUA.**

**HELBIDEA:** Berazubi kalea 01. Berazubi estadioko bulegoak.

**ESKATZAILEA:** Tolosako Udala.

**ESKAERA:** Gauzatze-proiektua onartzea.

**DOKUMENTAZIOA:**

- 2019ko urtarrilean idatzitako gauzatze-proiektua.
- 2019ko martxoan idatzitako eranskina.

**PROIEKTUAREN SUSTATZAILEA:** Tolosa Lantzen S.A.

**SARRERA – DATA:** 2019/04/29

**IDAZLEAK:** Imanol Agirre Manterola arkitektoa eta Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoa.

**ESPEDIENTEA:** B522/2019/0001

**URTEA:** 2019



TOLOSAKO  
UDALA

Kontuan harturik udal arkitektoak, 2019ko maiatzaren 6ko datarekin egindako txostena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENEA.**- 2019ko otsailaren 20an emandako dekretua zuzentzea, proiektuak jasotako obraren kostea eta haien onespina adieraziz: printzipala, BEZa eta totala. Ondoren, dekretua balioztatzea.

**BIGARRENA.**- Onartzea EARKI, S.L.k arkitektoak eta Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak 2019ko urtarrilean idatzitako “Zaharberritze proiektua: Berazubi estadioko bulegoak” gauzatze-proiektua eta 2019ko martxoan idatzitako eranskina, baldintza partikular hauekin:

1. *Kanpoko arrapalan, eskubandak bi aldeetan jarriko dira. Horrez gain, eskubanda horiek bi altueratan jarriko dira (Ikusi Euskal Herriko irisgarritasun Legea - 68/2000 Dekretua - III. Eranskina - 5.3.3 puntua. Eskubandak).*
2. *Eskaileran, eskubanda alde batean jarriko da. Eskubanda hori bi altueratan jarriko da (Ikusi Euskal Herriko irisgarritasun Legea - 68/2000 Dekretua - III. Eranskina - 5.3.3 puntua. Eskubandak).*
3. *Proiektuan aldaketa horiek egin ondoren, kopia digital berria (proiektua eguneratuta + eranskina) aurkeztuko da Udaletxeko sarrera-erregistroan.*

**HIRUGARRENA.**- Gogoraraztea aurreko txostenean aipatzen ziren baldintzak ere bete behar direla. Hain zuzen ere, Tolosa Lantzen, SA-ri jakinarazi zitzaizkion 2019ko otsailaren 20ko 2019/0277 dekretuaren bidez eta hauexek dira:

### 1. Amiantoa kentzeko plana:

Estalkiko fibrozementuzko plakak kendu behar direnez, obra hasi baino lehen aurkeztu behar da amiantoaren arriskuari buruzko lan-egitasmoa eta Eusko Jaurlaritzaren Lan Ordezkaritzak onartu beharko du.

Obrak hasi baino lehen, ondorengo agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Desamiantatze-plana.
- Eusko Jaurlaritzaren Lan-ordezkaritzak Planari emandako onarpena.
- OSALANek Planari emandako baimena.

Gainera, fibrozementuzko plakak kentzerakoan, langileen eta obrara joaten den edozeinen eskura egon behar du obran amiantoaren tratamenduari eta obran hartu beharreko neurriei buruzko dokumentazioak.



Kudeatzaile baimendun batek erretiratu behar ditu eta dagokion hondakindegian jaso/utzi behar dira. Fibrozementuzko plakak erretiratu eta gero, kudeatzaile baimendunak ziurtagiriak aurkeztu behar ditu, hondakin horiek onartuak eta jasoak izan direla egiaztatuko dutenak.

## 2. Autobabes plana:

- Bulegoetako eraikina erabili ahal izateko, estadioko gaur egungo autobabes plana eguneratu behar da eta dagozkion izapideak egin.

## 3. Jarduera baimena:

- Bulegoetako eraikina erabili ahal izateko, estadioko gaur egungo jarduera lizentzia eguneratu behar da eta dagozkion izapideak egin.

## 4. Erabilerarik gabeko lokala:

- Behe solairuan erabilerarik gabeko lokala sortuko da (137 m<sup>2</sup>). Eraikingintzako Kode Teknikoaren ikuspuntutik, bukatu gabeko lokala izango da. Beraz, lokal horrek hutsik egon behar du.
- Gogorarazten da lokal hori edozein jardueratarako erabili nahi bada, dagozkion jarduera eta obra lizentziak izapidetu behar direla.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri Muñoa Fundazioari eta Tolosa C.F-ri ematea.

## **5. ONARTZEA TOLOSAKO ALONDEGI PLAZAN JARRI NAHI DEN EGITURA TENKATUA HORNITZEKO, INSTALATZEKO ETA MUNTATZEKO — PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA MUNTAIA EGIKARITZEKO ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA BARNE— KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

### 1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Alondegia plazan jarri nahi den egitura tenkatua hornitzeko, instalatzeko eta muntatzeko -proiektuaren idazketa eta muntaiaren egikaritzearen zuzendaritza fakultatiboa barne-lizitazioa.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Zerbitzuak eta Obrak
Espedientea:	2019HASI0001

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren



TOLOSAKO  
UDALA

arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

## **2.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Departamentuko buruak 2019ko apirilaren 17an egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Zehatzen Plegua, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza partikularren plegua osatzeko oinarritzko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan: "28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

*1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik."*

## **3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:



- Administrazio baldintza partikularren plegua osatzeko oinarrizko datuen inguruko txostena, non baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Idazkariaren txostena.
- Kontuhartzailearen txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; **hornidura kontratua** hain zuzen ere. Hemen aipatzekoa da, bi kontratu-mota desberdin batzen direla kontratu bakarrean; alde batetik, hornidura-kontratua egitura tenkatua erosteari dagokionez, eta beste alde batetik, berriz, zerbitzu-kontratua, egitura horrek instalazioa eta mantenimendua behar baititu. Beraz, hori kontuan izanik, eta aipatutako Legearen 18. artikuluan xedaturikoaren arabera, kontratu misto bat izango litzateke gurea eta artikuluko bereko 1 paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutakoaren arabera, **hornidura kontratu** bat da gurea, hori baita prestazio nagusiaren izaera.

Horregatik guztiagatik, Legearen 16. artikuluan xedatutakoa izan beharko genuke kontuan: "16. artikulua. *Hornidura-kontratua.*

1. *Hornidura-kontratua da produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duena objektutzat.*
2. *Ez dira hornidura-kontratutzat joko jabetza gorpuzgabei eta balore negoziagarriei buruzko kontratuak, baina objektutzat ordenagailu-programak dituzten kontratuei buruz artikuluko honen 3. apartatuaren b) letran xedatutakoa ahaztu gabe.*
3. *Nolanahi ere, kontratu hauek joko dira hornidura-kontratutzat:*
  - a) *Enpresaburua hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioa entregatzera behartzen duten kontratuak, kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe egindakoak, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien arabera egiteagatik entregak.*
  - b) *Objektutzat telekomunikazio-ekipamenduak edo -sistemak edo informazioa tratatzeko ekipamendu eta sistemak eta horien dispositibo eta programak eskuratu eta errentan hartzea dutenak, baita programak erabiltzeko eskubidea lagatzekoak ere, eskura jartzeko edozein modalitatetan, neurrira garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta.*
  - c) *Fabrikazio-kontratuak, enpresaburuak horien bidez entregatu behar dituen gauzak (edo gauza) erakunde kontratatzaileak alde aurretik ezarritako ezaugarrien arabera egin behar direnean, nahiz eta erakunde kontratatzaileak bere gain hartu horretarako behar diren materialak osorik edo partez entregatzeko betebeharra.*
  - d) *Lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzea daukatenak objektutzat."*

Bestalde, kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua





xedaturikoa aintzat hartuta, **119.834,71 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetako banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean.

Hori horrela, nahiz eta hornidura kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 21. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, **kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da**, aipatu Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen baitu.

Bigarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86., 87., eta 89. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratua xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatua ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### **4.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLk bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“gerora ezin edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*



Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditante hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

## **5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK**

Epea: Kontratuaren xede diren lanak egiteko gehieneko epea, guztira, 13 astekoa da, horrela banatuta: egikaritze proiektua idazteko: 3 aste; egitura hornitu, instalatu eta gainontzeko lan osagarriak gauzatzeko epea: 8 aste; eta instalazioaren amaierako dokumentazioa aurkezteko epea: 2 aste.

Dena den, honakoak hartu behar dira kontuan:

- Egikaritze proiektua idazteko epea (3 astekoa) kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasi eta dokumentuak aurkeztean bukatuko da.
- Egitura tenkatua hornitu, instalatu eta gainontzeko lan osagarriak gauzatzeko epea (8 astekoa) proiektua Udalak onartu eta gero hasiko da eta instalazio osoa amaitzean bukatuko da.
- Instalazioaren amaierako dokumentazioa aurkezteko epea bukatuko da proiektua Udalak onartu eta 10 astetara.

**Edonola ere, kontratazio honen xede diren lan guztiek amaituta egon beharko dute 2019ko irailaren 30erako.**

Oinarritzko lizitazio aurrekontua: 145.000,00 euro, horietatik 119.834,71 euro printzipala eta 25.165,29 euro BEZari (% 21) dagozkionak.

Balio zenbatetsia: 119.834,71 euro.

Aurrekontu-partida: Kontratuaren xede diren lanak, 0700.609.01.15.320 aurrekontu-partiden kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

## **6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPKL-n jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "2. Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta IV. eranskinetako zerbitzu bereziak emateko kontratuetan; izan ere, horiek azken prozedura horren arabera adjudikatuko dira. 168. artikuluan ezarritako kasuetan, publikitate gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da; 167. artikuluan aurreikusitakoetan, lehia-elkarrizketara edo lizitazio negoziatura jo ahalko da, eta, 177. artikuluan aipatutakoetan, azkenik, berrikuntzarako elkartzeko prozedura erabili ahalko da."



Beraz, kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **prozedura ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 18 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 168. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

Kasu honetan, SPKLk 145. artikuluan xedatutakoa betetzen da:

*“1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta. 2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da. Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organok ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak... 4. Kontratazio-organok ardura hartuko dute kalitate handikoak diren eta beharrei ahal den hobekien erantzuten dieten obrak, hornidurak eta zerbitzuak lortzeko moduko adjudikazio-irizpideak ezar daitezten; bereziki, objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten zerbitzuen kontratu-prozeduretan, nola baitira ingeniartzako eta arkitekturako zerbitzuak... 5. 1. apartatuan aipatzen diren irizpideak, kontratua adjudikatzeko oinarri izan behar dutenak, administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian ezarriko dira, eta lizitaziorako deialdi gisa balio duen iragarkian agertu beharko dira, honako baldintza hauek betez. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan...”*

Azkenik, berme-epeari dagokionez, urtebeteko epea ezarri da, eta SPKLren 111.5 artikulua azken idatz-zatian xedaturikoa betetzen bada, epe hau 6 hilabetekoa izango da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez baitu 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen.

## **7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.



## **8.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkatearena da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, Udal honetako alkateak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, **lizitazioari hasiera emateko eskumena Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du idazkari honek. Halaber, 2019ko martxoaren 20an egindako Alkatetzaren Dekretuaren bidez alkateak aurretik aipatutako delegazio dekretua aldatu du; beraz, dekretu horren 2. klausularen lehen puntuko a) idatzatiaz xedatutakoa kontuan izan beharko da, jardunbidearen hurrengo pausoetan, eta horren arabera, **alkate-lehendakaria izango da kitapena egin aurretik egiten diren izapidetze guztiak egiteko eskumena duen organoa.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Alondegi plazan jarri nahi den egitura tenkatua hornitzeko, instalatzeko eta muntatzeko —proiektuaren idazketa eta muntaiaren egikaritzearen zuzendaritza fakultatiboa barne— kontratuaren espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.

**BIGARRENA.-** Onartzea kontratu honen ezaugarriak:

Epea: Kontratuaren xede diren lanak egiteko gehieneko epea guztira 13 astekoa da, horrela banatuta: egikaritze proiektua idazteko: 3 aste; egitura hornitu, instalatu eta gainontzeko lan osagarriak gauzatzeko epea: 8 aste; eta instalazioaren amaierako dokumentazioa aurkezteko epea: 2 aste.

Dena den, honakoak hartu behar dira kontuan:

- Egikaritze proiektua idazteko epea (3 astekoa) kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasi eta dokumentuak aurkeztean bukatuko da.



- Egitura tenkatua hornitu, instalatu eta gainontzeko lan osagarriak gauzatzeko epea (8 astekoa) proiektua udalak onartu eta gero hasiko da eta instalazio osoa amaitzean bukatuko da.
- Instalazioaren amaierako dokumentazioa aurkezteko epea, proiektua udalak onartu eta 10 astetara bukatuko da.

**Edonolaee , kontratazio honen xede diren lan guztiek amaituta egon beharko dute 2019ko irailaren 30erako.**

Oinarrizko lizitazio aurrekontua: 145.000,00 euro, horietatik 119.834,71 euro printzipala eta 25.165,29 euro BEZari (% 21) dagozkionak.

Balio zenbatetsia: 119.834,71 euro.

Aurrekontu-partida: Kontratuaren xede diren lanak, 0700.609.01.15.320 aurrekontu-partiden kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria.

**LAUGARRENA.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (**prozedura ireki sinplifikatua**) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren proposamenak **16 egun naturaleko** epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**BOSGARRENA.-** Erabaki hauek jakinaraztea Kontuhartzailetzari eta Hirigintza eta Idazkaritza departamentuei.

## **6. ONARTZEA TOLOSAKO HAURREN KONTSEILUAREN DISEINUAREN ETA GARAPENAREN ZERBITZU-KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

### **1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren Xedea:	Tolosako Haurren Kontseiluaren diseinua eta garapenaren zerbitzua.
Unitate sustatzailea:	Kultura, Festak eta Gazteria
Espedientea:	2019SABI0004

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren



arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

## **2.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Gazteria teknikariak 2019ko martxoaren 11n egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoaren plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, txosten ekonomikoa, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Egun bereko txostenean, Gazteria teknikariak kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako Legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan: *“Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.”*

Bosgarrena.- 2019ko urtarrilaren 21ean, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak huts deklaratu zuen 2018ko abenduaren 10ean onartutako lizitazioa, bertara aurkeztutako proposamen bakarrak ez baitzuten betetzen pleguetan eskatutako baldintzak.

## **3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi



baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Udal teknikariak egindako kontratazio-proposamena.
- Baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Idazkariaren txostena.
- Kontuhartzailearen txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen: *“Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak”*.

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **65.055,28 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetako banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espeditentean.

Hori horrela, nahiz eta zerbitzu kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000,00 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla*



*egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### **4.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLk bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: “gerora ezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arazoituta”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

SPKLren 117.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio espeditentea aurreitazko izapidetzeaz egingo da, esleipenarekin eta kontratuaren formalizazioarekin ere, nahiz eta egikaritzea 2019. urtean hasi. Honetarako, dagokion urteko aurrekontuetan dagokion kreditua atxikituko zaio.

#### **5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK**

Epea: Zerbitzu kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da, 2019ko irailaren 1ean hasi eta 2021eko abuztuaren 31 arte; gainera kontratua beste 2 urtez, urtez urte, luzatzeko aukera izango da: lehen luzapena 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31 arte eta bigarren luzapena, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31 arte.





Lizitazio prezio orokorra: **35.780,40 euro**, horietatik 32.527,64 euro printzipala eta 3.252,76 euro BEZari (% 10) dagozkionak. BEZaren kalkulua egiteko, BEZaren Legearen 91.1 artikuluko bigarren idatz-zatiaren, 7<sup>o</sup> zatian xedatutakoa izan behar da kontuan; horrenbestez, BEZa % 10ekoa izango da, baina BEZa salbuetsita egon daiteke ere, Legeak aurreikusten duena betetzen bada, hau da, esleipenduna gizarte intereseko elkartea bada.

Balio zenbatetsia: **65.055,28 eurokoa** da.

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0800.227.04.337.20** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura

		Balio zenbatetsia	Ordaintzeko kuota (BEZa barne)
2019	4 hilabete	5.421,27	5.963,40
2020	12 hilabete	16.263,82	17.890,20
2021	8 hil. + 4 hil.	16.263,82	17.890,20
2022	12 hilabete	16.263,82	17.890,20
2023	8 hilabete	10.842,55	11.926,80
<b>GUZTIRA</b>	<b>24 hilabete</b>	<b>65.055,28</b>	<b>71.560,81</b>

## 6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz...".

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin behar da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideak ehuneko



TOLOSAKO  
UDALA

45a suposatzen dute, beraz, SPKLk 159.1.b) artikuluan xedatutakoa ez da bete behar eta lege bereko 145. artikuluan xedatutakoak agintzen du.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPK Legearen 111.5, azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabeteetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 euroko kopurua gainditzen.

## **7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA**

Kontratazio-espediterekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

## **8.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkatearena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, Udal honetako alkateak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Haurren Kontseiluaren diseinua eta garapenaren zerbitzu-kontratuaren espeditentea, eta lizitazioari hasiera ematea.

**BIGARRENA.-** Onartzea kontratu honen ezaugarriak:



Epea: Zerbitzu kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da, 2019ko irailaren 1ean hasi eta 2021eko abuztuaren 31 arte; gainera kontratua beste 2 urtez, urtez urte, luzatzeko aukera izango da: lehen luzapena 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31 arte eta bigarren luzapena, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31 arte.

Lizitazio prezio orokorra: **35.780,40 euro**, horietatik 32.527,64 euro printzipala eta 3.252,76 euro BEZari (% 10) dagozkionak. BEZaren kalkulua egiteko, BEZaren Legearen 91.1 artikuluko bigarren idatz-zatiaren, 7º zatian xedatutakoa izan behar da kontuan; horrenbestez, BEZa % 10ekoa izango da, baina BEZa salbuetsita egon daiteke ere, Legeak aurreikusten duena betetzen bada, hau da, esleipenduna gizarte intereseko elkartea bada.

Balio zenbatetsia: **65.055,28 eurokoa** da.

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0800.227.04.337.20** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura

		Balio zenbatetsia	Ordaintzeko kuota (BEZa barne)
2019	4 hilabete	5.421,27	5.963,40
2020	12 hilabete	16.263,82	17.890,20
2021	8 hil. + 4 hil.	16.263,82	17.890,20
2022	12 hilabete	16.263,82	17.890,20
2023	8 hilabete	10.842,55	11.926,80
<b>GUZTIRA</b>	<b>24 hilabete</b>	<b>65.055,28</b>	<b>71.560,81</b>

**HIRUGARRENA.**- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria.

**LAUGARRENA.**- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko Kontratugilearen Profilean, lizitatuak beren proposamenak **20 egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**BOSGARRENA.**- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.



TOLOSAKO  
UDALA

## **7. 2019/697 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/19 ETA 2019/20 FAKTURA-ZERRENDAK).**

Idazkariak 2019/697 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

### **ALKATEAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/697**

*Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek emana.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:*

*19 zenbakia duena, 3.471,26 eurokoa.*

*20 zenbakia duena, 410.906,77 eurokoa.*

*Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Kontuan izan behar da, era berean, alkateak duela gastuak onartzeko ahalmena (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21.1 f) artikulua. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 41. 2 artikulua).*

*Horiek horrela, alkateak ondorengo hau*

### **EBATZI DU:**

**LENEHIK.-** *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*19 zenbakia duena, 3.471,26 eurokoa.*

*20 zenbakia duena, 410.906,77 eurokoa.*

**BIGARREN.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



## **8. ALKATETZA DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO MAIATZAREN 2TIK 8RA (DK2019/692-2019/754).**

Alkatetzak 2019ko maiatzaren 2tik 8ra bitartean (DK 2019/692-2019/754) egin dituen dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honakoak dira:

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
692	2019	02/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: SEGURIDAD DE LA INFORMACION EN EL ÁMBITO DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA
693	2019	02/05/2019	BERDINTASUNA	TOLOSAKO UDALA POLITIKETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA TXERTATZEKO PROIEKTUA GAUZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATAZIOA EGITEA.
694	2019	02/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: CARACTERISTICAS GENERALES DEL ACTO ADMINISTRATIVO EN LA LEY 392015
695	2019	02/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN BERDITASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK
696	2019	02/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: MODALIDADES DE CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO
697	2019	02/05/2019	KONTUHARTZAILITZA	19 ETA 20. FAKTUREN ERLAZIOETAN AZALTZEN DIREN FAKTURAK ONARTU ETA ORDAINTZEKO
698	2019	02/05/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 7-1A ETXEBIZITZA TASATUAREN ESKUALDAKETA ONARTZEA
699	2019	02/05/2019	AZOKAK	KONTRATU BAT ESLEITZEA "GESTIÓN DE MEDIOS" ENPRESARI
700	2019	02/05/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO 18 (-1) APARKALEKUAREN EMAKIDA ESKUBIDEA TRANSMITITZEKO GEHIENEO PREZIOA JAKINARAZTEA
701	2019	02/05/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO 3 (-1) APARKALEKUAREN EMAKIDA ESKUBIDEA TRANSMITITZEKO GEHIENEO PREZIOA JAKINARAZTEA
702	2019	02/05/2019	IDAZKARITZA	BAIMENA EMATEA UZTURRE 17 BEHEA E ETXEBIZITZA TASATUA ETA BERE ERANSKINAK SALTZEKO
703	2019	03/05/2019	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 58KO TEILATUA ETA FATXADA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
704	2019	03/05/2019	HIRIGINTZA	BIDEBIETA AUZOA 15EKO ERAIKINEAN OBRAK



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
				EGITEKO LIZENTZIA UKATZEA
705	2019	03/05/2019	HIRIGINTZA	MONTEKUE AUZOKO GURE IZARRAREN ETXEAN OBRAK EGITEKO UKATZEA
706	2019	03/05/2019	AZOKAK	KUTXA FINKOAREN ESKAERA
707	2019	03/05/2019	PERTSONALA	AINARA IRAZUSTA: IAZKO OPOR EGUN BAT
708	2019	03/05/2019	HIRIGINTZA	ERREKERIMENDUA IZASKUNGO ALDAPA 9AN
709	2019	03/05/2019	KULTURA	MENDI TOUR FILM LABURREN LEHIAKETAKO SARIEN ORDAINKETA ONARTZEA
710	2019	03/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: PROCEDIMIENTO SANCIONADOR
711	2019	03/05/2019	KULTURA	KULTUR TAILERRETAKO R.L.A. IKASLEARI OKER KOBRAUTUTAKO ERREKARGUAREN (4,83 €) ITZULPENA ONARTZEA
712	2019	03/05/2019	AZOKAK	LORATEGI IRAGANKORRA AURREKONTU ONARPENA
713	2019	03/05/2019	KONTUHARTZAILAZIA	BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA 2019. URTEKO HONDAKINEN BILKETA, IBILGAILUEN SARBIDEAREN, IBIAREN, AUTO-TAXIAREN ETA KUTXAZAIN AUTOMATIKOEN ERROLDEI.
714	2019	03/05/2019	GAZTEDIA	HI HAIZ, HI!-BELDUR BARIK JAIALDIKO SARIEN ORDAINKETA ONARTZEA
715	2019	03/05/2019	OBRAK	ONARTZEA CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A., ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA FV1-1902- 0038
716	2019	03/05/2019	OBRAK	ONTZAT EMATEA LAECOR, S.L., ENPRESAK ERREMENTARI KALEA 32 "TXINPARTA" ELKARTEARI EGIN DEN SOINU-NEURKETA
717	2019	06/05/2019	HIRIGINTZA	6.1. SAN COSME ETA SAN DAMIAN BIRPARTZELAZIOKO PROIEKTUA ZUZENTZEKO
718	2019	06/05/2019	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 19-2 ETXEBIZITZAREN BANE- BANAKETA ALDATZEKO OBREI DAGOKIEN OBRA AMAIERARAKO PROIEKTUAREN ERANSKIN BAT AURKEZTEKO AGINDUA
719	2019	06/05/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 36 ERAIKINAREN BANAKETA HORIZONTALERAKO ESKAERA ONARTZEA
720	2019	06/05/2019	PERTSONALA	IKASTAROA: JEDEAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ERREGLAMENDUA
721	2019	06/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	AES: MAIATZEKO ALOKAIRUEN ORDAINIKETA.
722	2019	06/05/2019	DIRU-BILKETA	25938 ESPEDIENTEAREN ITZULKETA
723	2019	06/05/2019	DIRU-BILKETA	26981 PREMIMAMENDU ESPEDIENTAREN ZATIKAPENA
724	2019	06/05/2019	DIRU-BILKETA	9887 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
725	2019	06/05/2019	ALKATETZA	8097 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA
726	2019	06/05/2019	DIRU-BILKETA	26899 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA
727	2019	06/05/2019	DIRU-BILKETA	1689 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA
728	2019	06/05/2019	HIRIGINTZA	AMATUZ AUZO ELKARTEARI BAIMENA EMATEA LORAZAINTZA LANAK EGITEKO AUZOLANEAN
729	2019	06/05/2019	PERTSONALA	ARKITEKTO BERRIA
730	2019	06/05/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 23KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
731	2019	06/05/2019	OBRAK	BERAZUBI ESTADIOKO BULEGOAK ZAHARBERRITZEKO PROIEKUTARNE ONARPENA
732	2019	07/05/2019	HIRIGINTZA	BIDEBIETA AUZO 15 BEHE-SOLAIRUKO LOKALA BANANTZEKO LIZENTZIA EMATEA
733	2019	07/05/2019	FESTAK	EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEARI, 2019KO MAITZAREN 11N 12:45ETIK 14:00ETARA KONTZERTU BAT ANTOLA DEZAN, PLAZA ZAHARRAREN ERABILERA UZTEA.
734	2019	07/05/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 23-2. SOLAIRUKO ETXEBIZITZAN OBRAK EGIN ETA BITAN BANATZEKO ESKAERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
735	2019	07/05/2019	HIRIGINTZA	BIDEBIETA AUZO 15 BEHE-SOLAIRUKO LOKALAN OBRAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
736	2019	07/05/2019	ALKATETZA	5801-UDAL LAGUNTZAK
737	2019	07/05/2019	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 11-1. EZKERREKO (B) ETXEBIZITZAKO EGITURAREN SENDOTZE PUNTUALA EGITEKO OBRA BAIMENA
738	2019	07/05/2019	HIRIGINTZA	IZASKUN AUZO 7-3 ESK. ETXEAN OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
739	2019	07/05/2019	KIROLAK	2019KO KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK. KLUBEN EGITURAK.(AURRERAKINA)
740	2019	07/05/2019	KIROLAK	2019KO KIOLETAKO DIRULAGUNTZAK. JARDUERA BEREZIAK. (AURRERAKINA)
741	2019	07/05/2019	AZOKAK	TOLOSA&CO MERKATARITZA ELKARTEKO HITZARMENA 2019
742	2019	07/05/2019	KONTUHARTZAILTZA	HONDKIN BILKETAREN TASAREN HOBARIA ESKAERAK ONARTZEA ETA EZ ONARTZEA.
743	2019	08/05/2019	KONTUHARTZAILTZA	21 ETA 22. FAKTUREN ERLAZIOETAN AZALTZEN DIREN FAKTURAK ONARTU ETA ORDAINTZEKO
744	2019	08/05/2019	DIRU-BILKETA	26779 BIRJAPEN ERREKURTSOAREN EBAZPENA
745	2019	08/05/2019	DIRU-BILKETA	11978 BIRJAPEN ERREKURTSOAREN EBAZPENA



TOLOSAKO  
UDALA

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
746	2019	08/05/2019	AZOKAK	TOLOSA ZURIA LORETAN-AZOKA BEREZIA ETA AURREKONTUA ONARTZEA
747	2019	08/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	TOLOSAKO UDALERRIAN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.
748	2019	08/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEARI MAIATZAREN 11AN ETA 12AN BUELTAKA PROGRAMA EGITEKO BAIMENA EMATEA.
749	2019	08/05/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 32-34PASEALEKUAN ZUNDAKETAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
750	2019	08/05/2019	PERTSONALA	FORMAZIO IKASTAROAK
751	2019	08/05/2019	KONTUHARTZAILTZA	KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA 3/2019
752	2019	08/05/2019	KONTUHARTZAILTZA	KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA 4/2019
753	2019	08/05/2019	PERTSONALA	OLATZ MINTEGUIAGA IRAZUSTA (UDATE ZERBITZURAKO ADMINISTRARI)
754	2019	08/05/2019	AZOKAK	HARAGI 2019 ANTOLAKETA ETA AURREKONTU ONARPENA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**